

KONTSULTA PUBLIKOA, JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEAREN ESPARRUAN EUSKARAREN ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN AURREKOA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26. artikuluari dagokionean, kontsulta publiko bat gauzatuko da Administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, erregelamenduaren proiektua prestatu baino lehen, herritarrek hobeki parte hartu dezaten arauak prestatzeko prozeduran, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arau horren eraginpean egon daitezkeen herritarrek eta erakunde adierazgarrienek puntu hauei buruz:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak

Halaxe nahi badute, herritarrek, antolakundeek eta elkarteek beren iritziak helarazteko aukera izanen dute galdetegian ageri diren alderdien gainean, **2017ko ABENDUAREN 29etara ARTE**, posta elektronikoko honen bidez: **participacion@montejurra.com**

Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak

Gaur egun, ez dago inola ere arauturik euskararen erabilera Jurramendiko Mankomunitatearen esparruan, Lizarrako Merindadeko Toki Entitate nagusia izanik ere, guztira 66.082 biztanleri ematen baitie zerbitzua. Hortaz, euskararen sustapenean eta normalizazioan lagundu behar du.

Euskarabideak egindako txosten soziolinguistikoak (Nafarroako mapa soziolinguistikoa, 2011) frogatu du euskara gehiago erabiltzen dela eremu mistoan sarturik dauden Mankomunitateko udalerrietan, bai eta eremu ez euskalduneko udalerrietan ere; gainera, euskarazko eta euskara irakasgai duten ereduak irakaskuntzatik etorkizunerako atera daitezkeen proiektioek adierazten dute euskal hiztunen kopuruak gora egiten duela berehalako etorkizunean, gure merindadean. Hori dela eta, Mankomunitateko administratuek gero eta zerbitzu gehiago euskaraz emateko eskatzen ahalko diote Mankomunitateari, eta Mankomunitateak, zerbitzu publikoa denez, era egokian eman beharko ditu.

Arau hori onestea beharrezko eta egoki den

Berriazko araudirik ez dagoela ikusi ondoren, Jurramendiko Mankomunitateak bere konpromisoa agertu nahi du gure kultur ondarea babestearekin nahiz euskararen erabilera Administrazio Publiko guztietan normaltzearekin, eta konpromisoa ere agertu erabiltzaileekin eta zerbitzu publikorako duen bokazioarekin.

Arauaren helburuak

Hona hemen arauketaren berriazko helburuak:

1. Aintzat harturik gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla, herritarrei helaraztea euskara integrazio eta komunikaziorako tresna garrantzitsua dela.
2. Herritarrei bermatzea erabili nahi duten hizkuntzan izatea harremana.

Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak

Egokia da eskuartean darabilgun kontua ordenantza bidez arautzea, hartzaileak zein-zenbat diren jakiterik ez dagoelako, ondoren ere eta bata bestearen atzetik aplikazioak izan ditzakeelako, eta Jurramendiko Mankomunitatearen esparruko berezko arauketa delako, kontuan hartuta Mankomunitatean sarturik daudela eremu mistoan kokaturiko udalerriak eta, era berean, eremu ez euskalduneko kokaturik dauden udalerriak.

Ez da aurreikusitako aukera ez-erregulatzailerik.